

**Txostena**

**Informe**

**EAEko Udal Entitateen Kontuak**

**Cuentas de las Entidades Locales de la CAPV**

**2014**





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## AURKIBIDEA/INDICE

LABURDURAK ETA DEFINIZIOAK.....	5
AZTERTUTAKO RATIOAK.....	5
I. SARRERA.....	7
II. ONDORIOAK.....	10
II.1 UDALEN KONTUAK.....	10
II.2 UDALAZ GAINDIKO KONTUAK.....	13
III. RATIOAK ETA ADIERAZLEAK.....	16
III.1 UDAL ADIERAZLEAK 2014/12/31-N.....	16
III.2 UDALAZ GAINDIKO ENTITATEEN ADIERAZLEAK 2014/12/31-N.....	30

## ERANTSITAKO LIKIDAZIOAK

<http://www.tvcp.eu/informes.asp>

ALEGAZIOAK.....	37
-----------------	----

ABREVIATURAS Y DEFINICIONES.....	41
RATIOS ANALIZADOS.....	41
I. INTRODUCCIÓN.....	43
II. CONCLUSIONES.....	46
II.1 CUENTAS MUNICIPALES.....	46
II.2 CUENTAS SUPRAMUNICIPALES.....	49
III. RATIOS E INDICADORES.....	52
III.1 INDICADORES MUNICIPALES A 31/12/14.....	52
III.2 INDICADORES DE LAS ENTIDADES SUPRAMUNICIPALES A 31/12/14.....	66

## LIQUIDACIONES AGREGADAS

<http://www.tvcp.eu/informes.asp>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

<b>ANEXOS</b> .....	<b>73</b>
A.1 ENTIDADES CON CUENTAS AUDITADAS.....	73
A.2 GASTOS DE PERSONAL.....	74
A.3 DEFICIENCIAS DEL ANÁLISIS DE LAS CUENTAS GENERALES .....	75

## INFORMACIÓN ECONÓMICO FINANCIERA

<http://www.tvcp.eu/informes.asp>

1. OAAA, ENTIDADES PÚBLICAS, SOCIEDADES PÚBLICAS Y FUNDACIONES
2. RESUMEN DE LAS LIQUIDACIONES PRESUPUESTARIAS Y PLANTILLA
3. RATIOS FINANCIEROS
4. EVOLUCIÓN PRINCIPALES MAGNITUDES

<b>ALEGACIONES</b> .....	<b>87</b>
--------------------------	-----------

Vitoria-Gasteiz, 2016ko urriaren 27a

Vitoria-Gasteiz, 27 de octubre de 2016



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## LABURDURAK ETA DEFINIZIOAK

EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
10/2003 FA	21/2003 Foru Araua, abenduaren 2koa, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Toki Entitateen aurrekontuei buruzkoa.
21/2003 FA	21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Toki Entitateen aurrekontuei buruzkoa.
3/2004 FA	3/2004 Foru Araua, otsailaren 9koa, Arabako Lurralde Historikoaren Toki Entitateen aurrekontuei buruzkoa.
GODG	Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina.
LH	Lurralde historikoa.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.

## AZTERTUTAKO RATIOAK

Berehalako likidezia	Funts likidoak / Ordaintzeke dauden obligazioak.
Likidezia	Funts likidoak / Hartzekodunak epe laburrera.
Epe laburreko kaudimena	Funts likidoak + kobratzeko dauden eskubideak / ordaintzeko dauden obligazioak.
Zorra amortizatzeko gutxieneko epea	Erabilitako zorra / Emaidza arrunta.
Diru-sarrera errepikarien bilakaera	$[N \text{ ekitaldiaren ustiapen sarrerak} + N \text{ ekitaldiaren finantza sarrerak} / N-1 \text{ ekitaldiaren ustiapen sarrerak} + N-1 \text{ ekitaldiaren finantza sarrerak}] - 1.$
Egiturazko gastuen bilakaera	$[N \text{ ekitaldiaren ustiapen gastuak} + N \text{ ekitaldiaren finantza gastuak} / N-1 \text{ ekitaldiaren ustiapen gastuak} + N-1 \text{ ekitaldiaren finantza gastuak}] - 1.$
Kobrantzak gauzatzea	Diru-bilketa garbia / Aitortutako eskubide garbiak
Kobrantzarako batez besteko aldia	Kobratzeko dauden eskubideak (1etik 3rako kap.) / Aitortutako eskubide garbiak (1etik 3rako kap.) *365.
Autonomia fiskala	Aitortutako eskubide garbiak (1etik 3rako kap.) / Guztira aitortutako eskubide garbiak.
Transf. eta diru-laguntza arruntekiko mendekotasuna.	Transferentzia eta diru-lag. arruntak / Sarrera arruntak (1etik 5erako kap.) * 100.
Ordainketak gauzatzea	Ordainketa likidoak / Aitortutako obligazio garbiak.
Ordainketarako batez besteko aldia	Ordaintzeko dauden obligazioak (2. eta 6. kap.) / Aitortutako obligazio garbiak (2. eta 6. kap.) * 365.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Langile gastuen indizea	Langileria gastuak / Aitortutako eskubide garbiak (1etik 5erako kap.).
Inbertsio ahalegina	Aitortutako obligazio garbiak (6. eta 7. kap.) / Aitortutako obligazio garbiak.
Ekitaldiko finantza zama	Aitortutako obligazio garbiak (6. eta 7. kap.) / Aitortutako eskubide garbiak (1etik 5erako kap.).
Aurrezki gordinaren indizea	Aitortutako eskubide garbiak (1etik 5erako kap.) - Aitortutako obligazio garbiak (1etik 4rako kap.) / Aitortutako eskubide garbiak (1etik 5erako kap.).
Aurrezki garbiaren indizea	Aurrezki gordina - finantza zama (gastuen 3. eta 9. kap.) / Aitortutako eskubide garbiak (1etik 5erako kap.).
Sarrera arruntek eragindako geldikina	GODG – Aplikatzeko dauden ordainketak / Aitortutako eskubide garbiak (1etik 3rako kap.).
Biztanleko superabita edo defizita	Doitutako aurrekontu emaitza / biztanle kopurua.
Aurrekontuaren ekarpena DGari	Doitutako aurrekontuaren emaitza /GODG.
Zalantzazko kobragarritasuna duten zordunen indizea	Zalantzazko kobragar. saldoak / kobratzeko dauden zordunak * 100.
Biztanleko inbertsioa	Obligazio aitortuak, gastuen 6. eta 7. kap. / Biztanle kopurua.
Jardueraren sarrerak	Eskubide aitortuak, sarrerren 1etik 3rako kapituluak eta sarrerren 5. kapituluak Partzuergoentzat.
Ekitaldi itxietan kobrantzak gauzatzea	Kobrantzak / Eskubideen hasierako saldoa (+ - aldaketak eta baliogabetzeak)
Ekitaldi itxietan ordainketak gauzatzea	Ordainketak / Obligazioen hasierako saldoa (+ - aldaketak eta baliogabetzeak)



## I. SARRERA

Epaitegi honek hezurmamitu duen Lanerako Programa betez, EAEko udalen eta udalaz gaindiko entitateen 2014ko kontu orokorrak aztertu dira, ikuspegi formala eta kualitatiboa oinarri hartuta.

Toki Entitateentzat aurrekontu gaietan erregulazio orokor oinarrizkoa Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen Testu Bategina onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak osatzen dute.

EAEren esparruan Lurralde Historiko bakoitzaren Batzar Nagusiek ebatzitako indarreko arautegia 3/2004 FA, 10/2003 FA eta 21/2003 FA da. Foru Dekretuen bidez garatu dira aurrekontuei buruzko foru arau hauek lurralde historiko bakoitzean eta horietan toki entitateen aurrekontuaren egitura eta kontabilitate publikoaren plan orokorra jaso dira. Hiru Lurraldeetako udalen aurrekontu likidazioari eta Kontu Orokorrari dagokion dokumentazioa, Aurrekontuko Foru Arau bakoitzaren 47 eta 62 artikuluek arautzen dute.

Aurreko urteetan egin dugun legez, txosten-diagnostiko hau EAEEn 2014ko ekitaldian zeuden 251 udal administrazioei (ez ditu besarkatzen erakunde autonomoak, sozietate publikoak, entitate publikoak eta fundazioak) eta udalaz gaindiko 64 entitateei soil-soilik dagokie. Hona hemen horien xehapena:

- 19 partzuergo
- 34 mankomunitate
- 6 kuadrilla
- 5 partzoneria

EAEren udal multzoaren kontuak eta Lurralde Historikoen arabera banaketa, eta udalaz gaindiko entitate multzoaren kontuak eta emandako zerbitzu motaren arabera banaketa likidazioak txertatuz eskuratu dira, ia gehienak fiskalizatu gabeak, 250 udalek (% 99,60) eta udalaz gaindiko 58 entitatek iritsarazi dizkigutenak (% 90,63).

Ikuskatutako kontuak aurkeztu dituzten erakundeak 24 udal eta udalaz gaindiko 10 erakunde dira eta HKEEK, gainera, 7 udal fiskalizatu ditu (ikus A.1).

Aztertutako udal eta udalaz gaindiko entitateek antolamenduan 104 erakunde autonomo, 120 udal sozietate publiko eta 4 enpresa-entitate publiko besarkatzen dituzte, ondotik erakutsiko dugun laburpenaren arabera. Xehapena ondoko lotunean dago jasoa:

- <http://www.tvcp.eu/informes.asp>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

	ERAKUNDE KOPURUA		
	ERAKUNDE AUTÓNOMOAK	SOZIJATE PUBLIKOAK	ENPRESA-ERAKUNDE PUBLIKOAK
<b>Udaletakoak:</b>			
ARABA .....	7	16	-
BIZKAIA .....	50	41	2
GIPUZKOA .....	45	53	2
<b>Udalaz gairdikoak:</b>			
Partzuergoak .....	-	4	-
Mankomunitateak .....	2	6	-
Kuadrillak .....	-	-	-
Partzoneriak .....	-	-	-
<b>EAE GUZTIRA</b>	<b>104</b>	<b>120</b>	<b>4</b>

Gainera, 28 fundaziotan parte hartzea baieztatu dute, 27 udalek eta udalaz gairdiko entitate batek.

Txosten honetan aurkeztu ditugun ondorioetarako, 2.180.410eko biztanleria hartu da abiaburutzat, eskatutako informazioa igorri duten Euskal Autonomia Erkidegoko 250 udaletan 2014ko urtarrilaren 1ean zeuden biztanleak, alegia.

Txosten honetako ondorioak eskuratzeko finkatutako biztanleria mailak honako hauek dira:

GERUZA	UDAL KOP.	BIZT. KOP. 14/1/1
> 50.000 .....	6	1.015.601
20.001 - 50.000 .....	12	388.445
10.001 - 20.000 .....	23	344.152
5.001 - 10.000 .....	28	202.781
1.001 - 5.000 .....	81	183.219
< 1.001 .....	100	46.212
<b>EAE GUZTIRA</b>	<b>250</b>	<b>2.180.410</b>
ARABA .....	51	321.932
BIZKAIA .....	111	1.143.330
GIPUZKOA .....	88	715.148

Zerbitzua ematen zaion biztanleria, zerbitzu motaren arabera, honakoa da kontuak prozesatu diren 58 entitateetan:

JARDUERA	ENTITATE KOP.	ARTATURIKO BIZTANLERIA
1. Ura eta saneamendua .....	12	1.864.973
2. Udal zerbitzuen kudeaketa.....	9	376.334
3. Hiriko hondakin solidoak.....	9	1.546.346
4. Gizarte Ongizatea .....	9	252.035
5. Arabako Kuadrilla .....	6	79.850
6. Sustapena eta irakaskuntza, euskara eta lanerako prest.....	5	273.984
7. Partzoneriak eta baso ustiapena .....	5	62.870
8. Suteak itzaltzea .....	2	60.629
9. Garraioak .....	1	755.628

Lana egiteko honako prozedura hauek erabili ditugu:

- 2014ko ekitaldiko Kontu Orokorren analisia. Azterlan hau oinarri izan da toki entitateek, informatzeko betebeharrari dagokionez, legedia zein neurritan betetzen duten zehazteko.
- Udal eta udalaz gaindiko entitate guztien kontu orokorren atal diren egoera balantzeen, galera eta irabazien kontuen eta aurrekontuaren likidazioaren azterketa berariazkoa; ezargarria zaien arautegian eskatutako informazio osoa barne hartzen dutela eta agiri guztiak elkarren artean koherenteak direla egiaztatu da.
- Udal eta udalaz gaindiko entitateen egoera balantzeen, galera eta irabazien kontuen eta aurrekontuen likidazioen azterketa berariazkoa, ekonomia-finantza izaerako adierazleak eskuratzeko.

Udalek eta udalaz gaindiko entitateek igorritako agirien edukia aztertzean hiru akats mota bereizi ditugu:

- Aurrekontu, aurrekontuen likidazio eta kontu orokorra onesteko epeetan eragina dutenak.
- Kontu orokorra eragiten dutenak, bai eduki formalari dagokionez, bai informazioaren eduki kualitatiboari dagokionez ere.
- Aurreko ekitaldietako Gastu orokorretarako diruzaintzako geldikin negatiboen finantzaketa moldeari erreferentzia egiten dietenak.

Txostenaren datu ekonomikoak milako euroetan daude emanak eta dezimalik ez erakusteko biribildu dira; datuek beti balio zehatz bakoitzaren biribiltzea erakusten dute eta ez biribildutako datuen batuketa.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## II. ONDORIOAK

### II.1 UDALEN KONTUAK

Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako Toki Entitateen Aurrekontuko Foru Arauek agintzen dute Toki Entitateek HKEEri Kontu Orokorra aurkeztuko diotela, beren berariazko arautegiak agintzen duen terminoetan behar bezala onetsia; berebat, HKEEren sorrera legearen 9.5 artikulua agintzen du nahitaezkoa dela Epaitegi honi Toki Entitateen Aurrekontuen likidazioari dagokion dokumentazioa igortzea, egin edo onesten denetik aurrera hilabeteko epean. Adunako Udalak ez du obligazio hori bete (ikus A.3.1).

Ondotik azalduko ditugun ondorioak EAEren 250 udalek igorritako datuetatik eskuratu dira. Horrek esan nahi du EAEko udalen % 99,60k aurkezten dizkiotela kontuak Epaitegi honi.

A.3.1 eranskinean banaka zehazten dira aztertutako 250 udaletan aurkitutako akatsak. Azpimarratu behar dugu udalerrien % 17,20 egiten duten 43 udaletan ez dela arestian aipatutako eranskinetan zehaztutako hutsetatik batere azaleratu; horietatik 17, Arabako Lurralde Historikoan daude; 6, Bizkaiko Lurralde Historikoan eta 20, Gipuzkoako Lurralde Historikoan.

#### Onespen epeak

- 149 udalek aurrekontuak 2014ko lehenengo seihilekoan onetsi zituzten eta 9k, berriz, ekitaldiaren bigarren seihilekoan.

Aurrekontua dagokion ekitaldia hasi aurretik onetsi behar da, Lurralde Historiko bakoitzaren Aurrekontuko Foru Arauen 15.2 artikulua agintzen duenaren arabera. Aztertu ditugun 250 udaletatik % 32k bakarrik onetsi ditu 2014ko aurrekontuak ekitaldia hasi aurretik. Hona hemen aurrekontuen onespen aldien arabera sailkatutako udal kopurua:

AURREKONTUEN ONESPENA	UDAL KOPURUA	%
2014/01/1 baino lehenago .....	80	% 32,00
2014ko 1. hiruhilekoa .....	103	% 41,20
2014ko 2. hiruhilekoa .....	46	% 18,40
2014ko 2. seihilekoa .....	9	% 3,60
Luzatutako aurrekontua .....	12	% 4,80

- 16 udaletan aurrekontuaren likidazioak indarreko arautegiak agindutako data baino beranduago onetsi dira.

Lurralde historiko bakoitzaren Aurrekontuko Foru Arauen 49. artikulua hurrengo ekitaldiko martxoaren 31 ezartzen du Erakundearen lehendakariak onesteko epemuga modura. 250 udalen % 93,60k 2014ko ekitaldiaren aurrekontu likidazioa 2015eko apirilaren 1a baino lehenago onetsi du; gainerako % 6,40ak, berriz, aurrekontuari buruzko arautegiak finkatutako epea urratu du.



Hona hemen aurrekontuen likidazioaren onespén aldien arabera sailkatutako udal kopurua:

LIKIDAZIOAREN ONESPENA	UDAL KOPURUA	%
2015/04/1 baino lehenago.....	234	% 93,20
2015/04/1 eta 2015/07/31 bitartean .....	14	% 6,00
2015/08/1 eta 2015/12/31 bitartean .....	2	% 0,80

- 69 udalek Kontu Orokorra arautegiak agindutako data baino beranduago onetsi dute eta 9 udaletan ez dago jasota Kontu Orokorra onetsi denik.

Lurralde Historiko bakoitzaren Aurrekontuko Foru Arauen 63. artikulua hurrengo ekitaldiko uztailearen 31 ezartzen du Erakundearen Osokoak onesteko epemuga modura. 250 udalen % 68,80k Kontu Orokorra arautegiak agintzen duen epean onetsi du. Hona hemen Kontu Orokorra onesteko aldien arabera sailkatutako udal kopurua:

KONTU OROKORRAREN ONESPENA	UDAL KOPURUA	%
2015/08/1 baino lehenago.....	172	% 68,80
2015/08/1 eta 2015/12/31 bitartean .....	64	% 25,20
2016/01/1 baino beranduago.....	5	% 2,00
Ez dago jasoa onartu denik.....	9	% 3,60

## Kontu Orokorraren eduki formala

Hona hemen kontuen edukian beste zenbait akats:

HUTSAK	UDAL KOPURUA
	2014
Ez dago balantzerik .....	1
Ez dago emaitzen konturik.....	1
Ez da finantzaketa taula barne hartu .....	10
Ez da udal zorrari buruzko informaziorik jaso .....	4
Ez da oroitidazkia barne hartu.....	27

Kontu Orokorra, Egoera Balantzeak, Galera-rabazien Kontuak, Memoriak eta aurrekontuaren likidazioak osatzen dute eta udalak egin duen kudeaketa-lana erakusten du, ekonomia, finantza, ondare eta aurrekontuari dagozkion alderdietan. Kontu Orokorra mamitu eta onartzeko obligazioa hiru Lurralde Historikoen Foru Arauetan dago xedatua eta hala ez egiteak erakunde hauen kudeaketan buru egin behar duen gardentasuna eragiten du.

## Kontu Orokorraren eduki kualitatiboa

- Udaletan ezarritako ondare kontabilitateak, kasu ugaritan, oraindik ez du eduki zuzena. Honela, bada, 72 udalek ez dituzte balantzean edo emaitzen kontuan ibilgetuko amortizazioak txertatzen; 6 udalek ez dute kaudimen-gabeziatarako zuzkidura erakusten egoera balantzeko zordunen idazpuruan, nahiz diruzaintzaren geldikinaren kalkuluan barne hartzen dituzten. Balantzean edo emaitzen kontuan ibilgetuaren amortizazioak barne hartzen ez dituzten 72 udaletatik 62, 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriei dagozkie.
- Gainera, beste 4 udal daude, 24 hilabetetik gorako antzinatasuneko kobratzeko zorrak izanik, kobragarritasun azterketarik ez dutenak eta diruzaintza geldikinetik inongo kopururik deduzitu ez dutenak.
- Hona hemen kontuen edukian beste zenbait akats:

UDAL KOPURUA	
2014	
<b>AURREKONTUKO AKATSAK</b>	
Ez dira kalkulatzeko ekitaldiko aurrekontuaren emaitzen zuzenketak .....	1
Oker kalkulatuak diruzaintza geldikina .....	11
Ez da kalkulatzeko Geldikina atxikitako finantzaketa duten gastuetarako .....	5
Diruzaintza Kontuan deskoadratzeak daude .....	2
<b>ONDAREKO AKATSAK:</b>	
Zorren eranskina ez dator bat balantzearekin.....	37
Balantzean kaudimen-gabeziatarako zuzk. diruz. geldikinarena baino txikiagoa .....	6

## Gastu orokor negatiboetarako Diruzaintza Geldikinaren finantzaketa

- 12/12/31n Gastu orokorretarako geldikin negatiboa zuten 32 udaletatik 16 udalek ez dute 14/12/31n hori finantzatu, lurralde historiko bakoitzaren Toki Erakundearen Aurrekontuko Foru Arautegiaren 49.4 artikulua urratuz.
- 2012ko ekitaldiaren geldikin negatiboak finantzatu dituzten 16 udalek honako modu honetan egin dute:
  - 10 udalek 2013-2014 ekitaldietan aurrekontuaren gastuko kontu-sailak murriztuta.
  - 5 udalek 2013an edo 2014an geldikin positiboak eskuratuta, aurreko saldo negatiboa berdindu dutenak.
  - Udal batean maileguak kontratatuta.

## II.2 UDALAZ GAINDIKO KONTUAK

Iruña Okako Uren Partzuergoa, Haranako Uren Partzuergoa, Debade Udal Euskaltegien Mankomunitatea eta Uli Mankomunitatea entitateek ez dituzte 2014ko ekitaldiari dagozkion kontuak igorri eta lurralde historiko bakoitzaren Aurrekontuko Foru Arauen 63.5 artikulua urratu dute. Gainera, ezinezkoa izan da Kuartangoko Uren Partzuergoaren eta Ekialdeko Lautadako Uren Partzuergoaren kontuak barne hartzea (erakunde honek ez du jarduera abiarazi), indarreko legeriak agintzen duenarekiko bat datozen egiturak ez izateagatik.

Ondotik azalduko ditugun ondorioak EAEn udalaz gaindiko 58 entitatek igorritako datuetatik eskuratu ditugu.

A.3.2 eranskinean zehazten dira udalaz gaindiko entitate bakoitzean aurkitutako akatsak. Azpimarratu behar dugu udalerrien % 24,14 egiten duten 14 udalaz gaindiko entitatetan ez dela arestian aipatutako eranskinetan zehaztutako hutsetatik batere azaleratu; horietatik 6 Arabako Lurralde Historikoan daude; 3, Bizkaiko Lurralde Historikoan eta 5, Gipuzkoako Lurralde Historikoan.

### Onespen epeak

- 21 entitatetan aurrekontuak 2014ko lehenengo seihilekoan onartu zituzten, eta 4 entitatetan, berriz, bigarren seihilekoan. Aurrekontua dagokion ekitaldia hasi aurretik onetsi behar da, Lurralde Historiko bakoitzaren Aurrekontuko Foru Arauen 15.2 artikulua agintzen duenaren arabera. Aztertu ditugun EAEn udalaz gaindiko 58 entitateetatik % 51,72k bakarrik onetsi ditu 2014ko aurrekontuak ekitaldia hasi aurretik. Hona hemen aurrekontuen onespen aldien arabera sailkatutako udal kopurua:

AURREKONTUEN ONESPENA	ENTITATE KOPURUA	%
2014/01/1 baino lehenago.....	30	% 51,72
2009ko 1. hiruhilekoa.....	10	% 17,24
2009ko 2. hiruhilekoa.....	11	% 18,97
2014ko 2. seihilekoa.....	4	% 6,90
Luzatutako aurrekontua.....	3	% 5,17

- 7 erakundek aurrekontu-likidazioa aurrekontu-arautegiak agintzen duen data baino beranduago onetsi zuten. Lurralde historiko bakoitzaren Aurrekontuko Foru Arauen 49. artikulua hurrengo ekitaldiko martxoaren 31 ezartzen du Erakundearen lehendakariak onesteko epemuga modura. Udalaz gaindiko 58 entitateen % 87,93k 2014ko ekitaldiaren aurrekontu likidazioa 2015eko apirilaren 1a baino lehenago onetsi du. Ondotik, udalaz gaindiko entitateek aurrekontuaren likidazioa zein alditan onetsi duten erakutsiko dugu:

LIKIDAZIOAREN ONESPENA	ENTITATE KOPURUA	%
2015/04/1 baino lehenago.....	51	% 87,93
2015/04/1 eta 2015/07/31 bitartean .....	6	% 10,35
2015/08/1 eta 2015/12/31 bitartean .....	1	% 1,72



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

- 16 entitatetan Kontu Orokorra aurrekontu-arauegiak agindutako data baino beranduago onetsi zen eta 10 entitatetan ez dago erasota onartu dutenik. Lurrealde historiko bakoitzaren Aurrekontuko Foru Arauen 63. artikulua hurrengo ekitaldiko uztailearen 31 ezartzen du Entitatearen Osoko bilkurak aurrekontua onesteko epemuga. Udalaz gaindiko 32 entitatek baizik ez dute Kontu Orokorra indarreko aurrekontu-arauegiak emandako epean onetsi; horiek udal guztien % 55,17 egiten dute. Onespenaldien arabera sailkatutako erakunde kopurua honakoa da:

KONTU OROKORRAREN ONESPENA	ENTITATE KOPURUA	%
2015/08/1 baino lehenago .....	32	% 55,17
2015/08/1 eta 2015/12/31 bitartean .....	14	% 24,14
2016/01/1 baino beranduago.....	2	% 3,45
Ez dago jaso onartu denik .....	10	% 17,24

### Kontu Orokorren eduki formalak

Hona hemen kontuen edukian beste zenbait akats:

AKATSAK	ENTITATE KOPURUA 2014
Ez dago balantzerik .....	3
Ez dago emaitzen konturik.....	3
Ez dago finantzaketa taularik .....	7
Ez dago oroitidazkirik .....	10
Ez da zorrari buruzko informaziorik jaso .....	3
Ez da Diruzaintza kontua jaso .....	2

### Kontu Orokorren eduki kualitatiboa

- Honela, bada, hamalau entitatek ez dituzte balantzean edo emaitzen kontuan ibilgetuaren amortizazioak txertatzen.
- Hona hemen kontuen edukian beste zenbait akats:

	ENTITATE KOPURUA 2014
<b>AURREKONTUKO AKATSAK:</b>	
Ez dira kalkulatzen ekitaldiko aurrekontuaren emaitzen zuzenketak .....	3
Oker kalkulatutako diruzaintza geldikina .....	4
Ez da kalkulatzen Geldikina atxikitako finantzaketa duten gastuetarako .....	2
Diruzaintza Kontuan deskoadratzeak daude .....	1
<b>ONDAREKO AKATSAK:</b>	
Zorraren eranskina ez dator bat balantzearekin.....	1
Zalantza kobragarritasuneko zuzkidura, balantzean jaso gabea .....	1



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## **Gastu orokor negatiboetarako Diruzaintza Geldikinaren finantzaketa**

12/12/31n Gastu orokorretarako geldikin negatiboak zituzten udalaz gaindiko 3 entitateetatik 2k ez dituzte 14/12/31n finantzatu, lurralde historiko bakoitzeko Toki Entitateen Aurrekontuko Foru Arauaren 49.4 artikulua urratuz.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

### **III. RATIOAK ETA ADIERAZLEAK**

#### **III.1 UDAL ADIERAZLEAK 2014/12/31-N**

Udal adierazleak kalkulatzeko aztergai izan ditugun 250 udalen aurrekontu-likidazioei dagozkien datuak erabili dira. Adierazleak eta eskuratutako likidazioen laburpenak, banaka jaso ditugu ondoko lotunean:

- <http://www.tvcp.eu/informes.asp>

### III.1.1 FINANTZA ADIERAZLEAK

#### Berehalako likidezia eta epe laburreko kaudimena eta likidezia

Ratio hauek erakusten dute udalek kitatzeko dituzten ordainketei aurre egiteko duten gaitasuna. Biztanleria geruzaren arabera batez besteko baloreak honako hauek dira:

GERUZA	UDAL KOPURUA	BEREHALAKO LIKIDEZIA	LIKIDEZIA	KAUDIMENA EPE LAB.
<b>ARABA</b>				
>50.000 .....	1	% 6,97	% 5,79	% 123,73
20.001-50.000.....	-	-	-	-
10.001-20.000.....	2	% 288,87	% 253,28	% 526,64
5.001-10.000.....	-	-	-	-
1.001-5.000.....	19	% 163,52	% 132,60	% 328,37
<1.001 .....	29	% 301,43	% 273,13	% 431,26
<b>ARABA BATEZ BESTE</b>	<b>51</b>	<b>% 49,02</b>	<b>% 40,91</b>	<b>% 178,25</b>
<b>BIZKAIA</b>				
>50.000 .....	3	% 185,54	% 97,24	% 268,81
20.001-50.000.....	8	% 194,46	% 209,46	% 340,25
10.001-20.000.....	9	% 207,78	% 182,23	% 335,38
5.001-10.000.....	12	% 280,97	% 229,69	% 453,44
1.001-5.000.....	40	% 207,88	% 173,25	% 448,30
<1.001 .....	39	% 208,12	% 157,93	% 267,26
<b>BIZKAIA BATEZ BESTE</b>	<b>111</b>	<b>% 199,26</b>	<b>% 145,27</b>	<b>% 321,45</b>
<b>GIPUZKOA</b>				
>50.000 .....	2	% 71,40	% 53,13	% 216,25
20.001-50.000.....	4	% 103,35	% 52,17	% 275,13
10.001-20.000.....	12	% 217,73	% 179,07	% 387,95
5.001-10.000.....	16	% 125,01	% 100,67	% 324,58
1.001-5.000.....	22	% 170,55	% 319,68	% 279,87
<1.001 .....	32	% 253,31	% 192,46	% 426,38
<b>GIPUZKOA BATEZ BESTE</b>	<b>88</b>	<b>% 130,77</b>	<b>% 101,63</b>	<b>% 291,94</b>
<b>EAE</b>				
>50.000 .....	6	% 96,76	% 54,89	% 205,68
20.001-50.000.....	12	% 169,01	% 150,82	% 322,06
10.001-20.000.....	23	% 221,55	% 187,38	% 384,05
5.001-10.000.....	28	% 189,66	% 153,69	% 378,00
1.001-5.000.....	81	% 188,43	% 178,12	% 380,51
<1.001 .....	100	% 242,69	% 192,67	% 344,56
<b>EAE BATEZ BESTE</b>	<b>250</b>	<b>% 143,76</b>	<b>% 106,82</b>	<b>% 279,51</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## Zorpetzea

Udalen arteko datuak berdintzearren, udalerriek 14/12/31n baliatutako zorra soilik hartu da gogoan. Hona hemen biztanleko, biztanleria geruzako, erabilitako zorraren batez besteko kopuruak:

GERUZA	UDAL KOP.	BIZTANLEKO ZORPETZEA	ZORPETZEA SARR. ARR.arab.	ZORRA AMORTIZ. GUTXIENKO EPEA(*)
<b>ARABA</b>				
>50.000.....	1	430	% 33,57	7
20.001-50.000.....	-	-	-	-
10.001-20.000.....	2	38	% 3,17	-
5.001-10.000.....	-	-	-	-
1.001-5.000.....	19	355	% 30,54	2
<1.001.....	29	172	% 15,52	1
<b>ARABA BATEZ BESTE</b>	<b>51</b>	<b>375</b>	<b>% 29,99</b>	<b>4</b>
<b>BIZKAIA</b>				
>50.000.....	3	62	% 4,82	-
20.001-50.000.....	8	143	% 13,17	1
10.001-20.000.....	9	160	% 14,69	1
5.001-10.000.....	12	189	% 16,97	1
1.001-5.000.....	40	263	% 21,24	1
<1.001.....	39	195	% 13,57	1
<b>BIZKAIA BATEZ BESTE</b>	<b>111</b>	<b>122</b>	<b>% 10,19</b>	<b>1</b>
<b>GIPUZKOA</b>				
>50.000.....	2	559	% 41,87	3
20.001-50.000.....	4	332	% 28,17	2
10.001-20.000.....	12	264	% 21,25	1
5.001-10.000.....	16	296	% 23,67	1
1.001-5.000.....	22	407	% 35,57	2
<1.001.....	32	390	% 24,59	1
<b>GIPUZKOA BATEZ B.</b>	<b>88</b>	<b>394</b>	<b>% 31,11</b>	<b>2</b>
<b>EAE</b>				
>50.000.....	6	559	% 41,87	3
20.001-50.000.....	12	332	% 28,17	2
10.001-20.000.....	23	264	% 21,25	1
5.001-10.000.....	28	296	% 23,67	1
1.001-5.000.....	81	407	% 35,57	2
<1.001.....	100	390	% 24,59	1
<b>EAE BATEZ BESTE</b>	<b>250</b>	<b>249</b>	<b>% 20,23</b>	<b>1</b>

(\*) Ekitaldi kopurua.

EAEren batez besteko erabilitako zorra biztanleko 249 eurorena da. 20 udal daude 2014/12/31n batez bestekoaren zorra baino nabarmen handiagoa dutenak (759 eta 2.321 euro bitartean biztanleko).

84 udalek ez dute erabilitako zorpetzerik 14/12/31n eta horietatik 43, 1.000 biztanletik beherako biztanleria geruzan daude.

Zorra itzultzeko gutxieneko epeak adierazten du zorra zenbat ekitalditan amortizatu daitekeen, egungo sarrera eta gastu arrunten mailarekin. Ratio honen banako azterketan, 29 udaletan zorra itzultzeko gutxieneko epea 3 urtetik gorakoa da (itzulketarako batez besteko epea) eta horietatik 8tan itzultzeko epea 5 urtetik gorakoa da. Hiru udalek 2014an emaitza arrunt negatiboa izan dute.

EAEko udalen batez besteko zorpetzea honakoa da:

GERUZA	UDAL KOPUR.	Euroak milakotan
		2014/12/31-N ERABILI- TAKO ZORPETZEA
<b>ARABA</b>		
>50.000 .....	1	104.019
20.001-50.000 .....	-	-
10.001-20.000 .....	2	1.090
5.001-10.000 .....	-	-
1.001-5.000 .....	19	13.493
<1.001 .....	29	2.262
<b>ARABA GUZTIRA</b>	<b>51</b>	<b>120.864</b>
<b>BIZKAIA</b>		
>50.000 .....	3	32.702
20.001-50.000 .....	8	39.596
10.001-20.000 .....	9	21.362
5.001-10.000 .....	12	16.845
1.001-5.000 .....	40	25.467
<1.001 .....	39	3.972
<b>BIZKAIA GUZTIRA</b>	<b>111</b>	<b>139.944</b>
<b>GIPUZKOA</b>		
>50.000 .....	2	138.350
20.001-50.000 .....	4	37.030
10.001-20.000 .....	12	47.938
5.001-10.000 .....	16	33.585
1.001-5.000 .....	22	19.664
<1.001 .....	32	4.955
<b>GIPUZKOA GUZTIRA</b>	<b>88</b>	<b>281.522</b>
<b>EAE</b>		
>50.000 .....	6	275.071
20.001-50.000 .....	12	76.626
10.001-20.000 .....	23	70.390
5.001-10.000 .....	28	50.430
1.001-5.000 .....	81	58.624
<1.001 .....	100	11.189
<b>EAE GUZTIRA</b>	<b>250</b>	<b>542.330</b>

EAEko Udalek foru aldundiei itunpeko zergetan udal partaidetzagatiko likidazio negatiboen kontzeptuan guztira 46 milioi euro dituzte itzultzeko, eta horietatik ia guztia Arabako Lurralde Historikoarena da.

## Diru-sarrera errepikarien eta egiturazko gastuen bilakaera

GERUZA	UDAL KOPURUA	SARR.ERREPIKARIEN BILAKAERA	EGITURAZKO GASTUEN BILAKAERA
<b>ARABA</b>			
>50.000 .....	1	% 3,92	% 4,72
20.001-50.000 .....	-	-	-
10.001-20.000 .....	2	(% 5,47)	% 0,01
5.001-10.000 .....	-	-	-
1.001-5.000 .....	19	% 24,82	% 24,82
<1.001 .....	29	(% 1,96)	% 4,83
<b>ARABA BATEZ BESTE</b>	<b>51</b>	<b>% 1,92</b>	<b>% 4,29</b>
<b>BIZKAIA</b>			
>50.000 .....	3	% 5,45	% 2,95
20.001-50.000 .....	8	(% 5,62)	(% 15,07)
10.001-20.000 .....	9	% 7,10	% 1,34
5.001-10.000 .....	12	(% 2,01)	% 1,30
1.001-5.000 .....	40	% 2,23	(% 2,65)
<1.001 .....	39	% 5,70	% 0,10
<b>BIZKAIA BATEZ BESTE</b>	<b>111</b>	<b>% 2,31</b>	<b>(% 2,24)</b>
<b>GIPUZKOA</b>			
>50.000 .....	2	% 6,72	% 1,31
20.001-50.000 .....	4	% 3,40	% 4,37
10.001-20.000 .....	12	% 5,92	% 2,87
5.001-10.000 .....	16	% 6,13	% 3,27
1.001-5.000 .....	22	(% 9,44)	% 5,07
<1.001 .....	32	% 5,53	% 4,16
<b>GIPUZKOA BATEZ BESTE</b>	<b>88</b>	<b>% 4,83</b>	<b>% 2,71</b>
<b>EAE</b>			
>50.000 .....	6	% 5,39	% 3,00
20.001-50.000 .....	12	(% 2,87)	(% 9,63)
10.001-20.000 .....	23	% 5,25	% 2,04
5.001-10.000 .....	28	% 2,62	% 2,44
1.001-5.000 .....	81	(% 2,20)	% 0,65
<1.001 .....	100	% 3,81	% 2,45
<b>EAE BATEZ BESTE</b>	<b>250</b>	<b>% 3,10</b>	<b>% 0,45</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

### III.1.2 AURREKONTUAREN ADIERAZLEAK

#### III.1.2.1 Sarrerren aurrekontukoak

GERUZA	UDAL KOP.	SARR.AURREK. EGIKAR.	GAUZAT. KOBAN.	KOBRANT. B-BEST.EPEA (*)	AUTONOMIA FISKALA	DIRU-LAG. eta TRANSF. ARR. MENP
<b>ARABA</b>						
>50.000.....	1	% 90,72	% 82,92	61	% 42,57	% 50,78
20.001-50.000.....	-	-	-	-	-	-
10.001-20.000.....	2	% 88,10	% 87,16	73	% 42,35	% 54,25
5.001-10.000.....	-	-	-	-	-	-
1.001-5.000.....	19	% 79,74	% 86,26	39	% 44,49	% 44,84
<1.001.....	29	% 79,34	% 87,25	29	% 44,49	% 44,84
<b>ARABA BATEZ BESTE</b>	<b>51</b>	<b>% 88,60</b>	<b>% 83,81</b>	<b>58</b>	<b>% 44,41</b>	<b>% 37,70</b>
<b>BIZKAIA</b>						
>50.000.....	3	% 89,64	% 95,12	44	% 36,21	% 61,91
20.001-50.000.....	8	% 87,71	% 94,38	29	% 39,79	% 58,01
10.001-20.000.....	9	% 86,77	% 94,35	34	% 39,79	% 59,30
5.001-10.000.....	12	% 80,81	% 94,86	27	% 37,67	% 57,81
1.001-5.000.....	40	% 79,99	% 94,54	25	% 38,09	% 56,35
<1.001.....	39	% 92,36	% 93,98	16	% 23,13	% 67,96
<b>BIZKAIA BATEZ BESTE</b>	<b>111</b>	<b>% 87,34</b>	<b>% 94,78</b>	<b>36</b>	<b>% 37,34</b>	<b>% 60,12</b>
<b>GIPUZKOA</b>						
>50.000.....	2	% 89,62	% 89,64	45	% 43,02	% 50,07
20.001-50.000.....	4	% 88,42	% 89,91	40	% 41,50	% 54,58
10.001-20.000.....	12	% 90,39	% 90,20	37	% 41,01	% 53,06
5.001-10.000.....	16	% 93,03	% 90,82	39	% 44,58	% 51,44
1.001-5.000.....	22	% 91,53	% 91,50	25	% 36,68	% 57,55
<1.001.....	32	% 95,43	% 93,18	20	% 35,55	% 54,95
<b>GIPUZKOA BATEZ BESTE</b>	<b>88</b>	<b>% 90,39</b>	<b>% 90,20</b>	<b>40</b>	<b>% 41,96</b>	<b>% 52,25</b>
<b>EAE</b>						
>50.000.....	6	% 89,90	% 90,69	49	% 39,55	% 56,32
20.001-50.000.....	12	% 87,93	% 92,99	33	% 40,32	% 56,92
10.001-20.000.....	23	% 88,94	% 91,36	39	% 40,71	% 55,43
5.001-10.000.....	28	% 87,62	% 92,47	34	% 41,75	% 54,08
1.001-5.000.....	81	% 82,62	% 92,00	28	% 39,09	% 54,39
<1.001.....	100	% 89,58	% 92,04	22	% 32,40	% 56,97
<b>EAE BATEZ BESTE</b>	<b>250</b>	<b>% 88,57</b>	<b>% 91,46</b>	<b>41</b>	<b>% 39,82</b>	<b>% 55,98</b>

(\*) Egun kopurua.

Autonomia fiskalak zerga zuzen, zehar zerga, tasa eta bestelako sarrerren kontzeptuan aitortutako eskubideen zenbatekoa jasotzen du, sarrera guztien artean zati-banatu. Adierazle hau udalerraren gaitasun fiskalaren, ordenantzetan jasotako tarifen eta kudeaketaren eraginkortasunaren arabera da.



## III.1.2.2 Gastuen aurrekontukoak

GERUZA	UDAL KOP.	GASTUEN AURR. EGIKARITZA	EGINDAKO ORDAINKETAK	ORDAINK. B-BEST. EPEA (*)
<b>ARABA</b>				
>50.000.....	1	% 90,13	% 90,59	61
20.001-50.000.....	-	-	-	-
10.001-20.000.....	2	% 84,36	% 91,79	47
5.001-10.000.....	-	-	-	-
1.001-5.000.....	19	% 83,60	% 88,54	51
<1.001.....	29	% 75,39	% 90,75	36
<b>ARABA BATEZ BESTE</b>	<b>51</b>	<b>% 88,18</b>	<b>% 90,44</b>	<b>57</b>
<b>BIZKAIA</b>				
>50.000.....	3	% 86,45	% 89,98	70
20.001-50.000.....	8	% 84,27	% 91,75	51
10.001-20.000.....	9	% 88,07	% 90,79	51
5.001-10.000.....	12	% 82,33	% 92,43	43
1.001-5.000.....	40	% 77,55	% 91,69	47
<1.001.....	39	% 89,94	% 88,79	69
<b>BIZKAIA BATEZ BESTE</b>	<b>111</b>	<b>% 85,03</b>	<b>% 90,76</b>	<b>59</b>
<b>GIPUZKOA</b>				
>50.000.....	2	% 85,86	% 89,70	59
20.001-50.000.....	4	% 84,92	% 92,25	54
10.001-20.000.....	12	% 84,27	% 89,72	58
5.001-10.000.....	16	% 87,76	% 92,09	49
1.001-5.000.....	22	% 87,83	% 91,33	44
<1.001.....	32	% 85,94	% 92,29	42
<b>GIPUZKOA BATEZ BESTE</b>	<b>88</b>	<b>% 85,73</b>	<b>% 90,59</b>	<b>55</b>
<b>EAE</b>				
>50.000.....	6	% 87,19	% 90,06	65
20.001-50.000.....	12	% 84,47	% 91,91	52
10.001-20.000.....	23	% 85,61	% 90,28	55
5.001-10.000.....	28	% 85,36	% 92,23	46
1.001-5.000.....	81	% 85,36	% 92,23	46
<1.001.....	100	% 84,58	% 90,36	52
<b>EAE BATEZ BESTE</b>	<b>250</b>	<b>% 85,77</b>	<b>% 90,65</b>	<b>57</b>

(\*) Egun kopurua.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Euroak/biztanleko

GERUZA	UDAL KOPURUA	BIZTANLEKO GASTUA	GTU.PERTSON. INDIZEA	BIZTANLEKO INBERTSIOA	INBERTSIO AHALEGINA	EKITALDIKO FINANT. ZAMA
<b>ARABA</b>						
>50.000 .....	1	1.430	% 41,30	149	% 10,40	% 5,20
20.001-50.000.....	-	-	-	-	-	-
10.001-20.000.....	2	1.203	% 45,59	104	% 8,61	% 1,25
5.001-10.000.....	-	-	-	-	-	-
1.001-5.000 .....	19	1.406	% 24,66	377	% 26,81	% 5,82
<1.001 .....	29	1.353	% 26,62	466	% 34,47	% 2,86
<b>ARABA BATEZ BESTE</b>	<b>51</b>	<b>1.404</b>	<b>% 39,31</b>	<b>185</b>	<b>% 13,15</b>	<b>% 4,85</b>
<b>BIZKAIA</b>						
>50.000 .....	3	1.282	% 28,84	195	% 15,24	% 1,18
20.001-50.000.....	8	1.085	% 33,66	91	% 8,38	% 2,41
10.001-20.000.....	9	1.113	% 30,67	137	% 12,34	% 2,17
5.001-10.000.....	12	1.184	% 28,48	180	% 15,23	% 4,40
1.001-5.000 .....	40	1.260	% 25,48	210	% 16,66	% 5,00
<1.001 .....	39	1.512	% 29,58	353	% 23,36	% 6,01
<b>BIZKAIA BATEZ BESTE</b>	<b>111</b>	<b>1.209</b>	<b>% 29,79</b>	<b>166</b>	<b>% 13,74</b>	<b>% 2,22</b>
<b>GIPUZKOA</b>						
>50.000 .....	2	1.429	% 28,63	223	% 15,62	% 5,95
20.001-50.000.....	4	1.218	% 33,90	179	% 14,66	% 5,53
10.001-20.000.....	12	1.273	% 30,94	200	% 15,69	% 3,92
5.001-10.000.....	16	1.252	% 28,30	161	% 12,83	% 4,72
1.001-5.000 .....	22	1.233	% 29,60	233	% 18,87	% 5,85
<1.001 .....	32	1.679	% 27,54	484	% 28,81	% 5,59
<b>GIPUZKOA BATEZ BESTE</b>	<b>88</b>	<b>1.320</b>	<b>% 29,96</b>	<b>206</b>	<b>% 15,58</b>	<b>% 5,17</b>
<b>EAE</b>						
>50.000 .....	6	1.353	% 31,72	191	% 14,12	% 3,32
20.001-50.000.....	12	1.123	% 33,74	116	% 10,33	% 3,36
10.001-20.000.....	23	1.205	% 32,08	167	% 13,90	% 3,06
5.001-10.000.....	28	1.222	% 28,37	169	% 13,85	% 4,59
1.001-5.000 .....	81	1.283	% 26,35	251	% 19,53	% 5,38
<1.001 .....	100	1.512	% 28,26	421	% 27,85	% 5,16
<b>EAE BATEZ BESTE</b>	<b>250</b>	<b>1.274</b>	<b>% 31,28</b>	<b>182</b>	<b>% 14,27</b>	<b>% 3,61</b>

Ekitaldiko finantza zama ratioak interesak ordaintzeko eta zorra amortizatzeko erabili behar den sarrera arrunten ehunekoak adierazten du.



### III.1.2.3 Aurrekontu emaitzaren eta diruzaintza geldikinaren adierazleak

Aurrezki gordinak finantzazkoak ez diren gastu arruntei behin aurre egin ondoren erabilgarri geratzen den sarrera arrunten atala erakusten du.

Aurrezki garbiak finantza zamaren ordainketari aurre egin ondoren geratzen den aurrezki gordinaren atala islatzen du. Berezko baliabideekin inbertsioak finantzatzeko udalak duen gaitasuna erakusten du.

	Euroak/biztanleko			
GERUZA	UDAL KOP.	BIZTANLEKO AURREZKI GORD.	BIZTANLEKO AURREZKIGARBIA	BIZTANLEKO SUPERABITA/DEFIZITA
<b>ARABA</b>				
>50.000.....	1	66	(1)	20,32
20.001-50.000.....	-	-	-	-
10.001-20.000.....	2	117	102	99,80
5.001-10.000.....	-	-	-	-
1.001-5.000.....	19	208	140	91,61
<1.001.....	29	254	223	159,09
<b>ARABA BATEZ BESTE</b>	<b>51</b>	<b>95</b>	<b>34</b>	<b>41,49</b>
<b>BIZKAIA</b>				
>50.000.....	3	223	207	76,40
20.001-50.000.....	8	121	94	97,18
10.001-20.000.....	9	134	111	76,47
5.001-10.000.....	12	162	113	102,89
1.001-5.000.....	40	252	190	120,81
<1.001.....	39	367	281	186,33
<b>BIZKAIA BATEZ BESTE</b>	<b>111</b>	<b>188</b>	<b>161</b>	<b>89,23</b>
<b>GIPUZKOA</b>				
>50.000.....	2	215	136	125,24
20.001-50.000.....	4	213	148	59,27
10.001-20.000.....	12	232	183	150,10
5.001-10.000.....	16	234	175	121,66
1.001-5.000.....	22	218	151	137,32
<1.001.....	32	487	399	322,00
<b>GIPUZKOA BATEZ BESTE</b>	<b>88</b>	<b>227</b>	<b>162</b>	<b>125,00</b>
<b>EAE</b>				
>50.000.....	6	183	140	74,93
20.001-50.000.....	12	147	110	86,29
10.001-20.000.....	23	184	148	117,26
5.001-10.000.....	28	203	148	113,41
1.001-5.000.....	81	234	169	119,11
<1.001.....	100	368	297	215,85
<b>EAE BATEZ BESTE</b>	<b>250</b>	<b>187</b>	<b>143</b>	<b>93,91</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Aurrezki gordinak edozein modutara finantza zamaren pareko edo handiagoa izan behar du, izan ere, bestela udalak ezingo lioke zama honen ordainketari aurre egin eta ez luke inbertsioetarako auto-finantzaketarik izango. Honek guztiak esan nahi du 2 udal daudela aurrezki garbi negatiboa erakusten dutenak.

Aurrezki garbiak positiboa izan behar du, kapitalezko sarrerak ez daitezen gastu arruntak finantzatzeko erabil. Aztertutako ekitaldian, aurrezki gordin negatiboa erakusten duten 2 udalez gain 6 udaletan finantza zamak aurrezki gordina gainditzen du. Honek guztiak esan nahi du 8 udal daudela aurrezki garbi negatiboa erakusten dutenak. Aurrezki gordina negatiboa duten suposamendu horietan edota finantza zama hau baino handiagoa denetan zorpetzeko marjinarik batere ez dutela aintzat hartuta, 8 udal hauen autofinantzaketarako gaitasuna zerokoa da.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Aitortutako eskubide garbiei dagokienez, batez besteko indizeak honako hauek dira:

GERUZA	UDAL KOP.	AURREZKI GORDIN. INDIZEA	AURREZKI GARB. INDIZEA	SARR.ARRUNTENG. GELDIKINA
<b>ARABA</b>				
>50.000.....	1	% 5,13	(% 0,08)	% 2,26
20.001-50.000.....	-	-	-	-
10.001-20.000.....	2	% 9,77	% 8,52	% 34,53
5.001-10.000.....	-	-	-	-
1.001-5.000.....	19	% 17,90	% 12,09	% 32,25
<1.001.....	29	% 22,99	% 20,13	% 55,69
<b>ARABA BATEZ BESTE</b>	<b>51</b>	<b>% 7,57</b>	<b>% 2,72</b>	<b>% 10,23</b>
<b>BIZKAIA</b>				
>50.000.....	3	% 17,26	% 16,08	% 15,15
20.001-50.000.....	8	% 11,11	% 8,70	% 19,26
10.001-20.000.....	9	% 12,38	% 10,21	% 18,45
5.001-10.000.....	12	% 14,56	% 10,16	% 33,54
1.001-5.000.....	40	% 20,33	% 15,34	% 38,73
<1.001.....	39	% 25,50	% 19,49	% 29,16
<b>BIZKAIA BATEZ BESTE</b>	<b>111</b>	<b>% 15,65</b>	<b>% 13,42</b>	<b>% 20,09</b>
<b>GIPUZKOA</b>				
>50.000.....	2	% 16,10	% 10,15	% 12,38
20.001-50.000.....	4	% 18,06	% 12,53	% 13,76
10.001-20.000.....	12	% 18,66	% 14,75	% 32,87
5.001-10.000.....	16	% 18,77	% 14,06	% 21,77
1.001-5.000.....	22	% 19,06	% 13,21	% 23,29
<1.001.....	32	% 30,71	% 25,12	% 38,55
<b>GIPUZKOA BATEZ BESTE</b>	<b>88</b>	<b>% 17,95</b>	<b>% 12,78</b>	<b>% 20,41</b>
<b>EAE</b>				
>50.000.....	6	% 14,12	% 10,80	% 11,43
20.001-50.000.....	12	% 13,23	% 9,86	% 17,59
10.001-20.000.....	23	% 15,65	% 12,59	% 27,84
5.001-10.000.....	28	% 17,04	% 12,45	% 26,61
1.001-5.000.....	81	% 19,52	% 14,15	% 33,53
<1.001.....	100	% 26,57	% 21,41	% 38,16
<b>EAE BATEZ BESTE</b>	<b>250</b>	<b>% 15,21</b>	<b>% 11,60</b>	<b>% 18,71</b>

Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikinak aurreko ekitaldietan eskuratutako soberakinak erakusten ditu, datozen ekitaldietako aurrekontuen finantzaketa iturri izan daitezkeenak. Taulan jasotako ratioak Geldikin horrek sarrera arrunt guztien gainean duen pisua jasotzen du.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Aztertu ditugun entitateetatik 7 udalek, % 2,80 egiten dutenek, Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikin negatiboa dute. Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikin negatiboak erakusten du udalak bere ahalmenez gainerik gastatu duela, hurrengo ekitaldietan zuzendu beharko den defizita sortuz, indarreko aurrekontuaren arautegian ezarritakoari jarraikiz. Hona hemen udal hauek biztanleria geruza eta Lurralde Historikoaren arabera sailkatuak:

GERUZA	UDAL KOP.	GERUZA GUZT. GAINEAN %
5.001-10.000.....	1	% 3,57
1.001-5.000.....	3	% 3,70
<1.001 .....	3	% 3,00
<b>EAE GUZTIRA</b>	<b>7</b>	<b>% 2,80</b>
ARABA .....	1	% 1,96
BIZKAIA .....	6	% 5,41



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

GERUZA	UDAL KOP.	AURREK. EKARPENA DIRUZA. GELDIKINARI	ZALANTZ. KOBR. ZORDUNEN INDIZEA
<b>ARABA</b>			
>50.000 .....	1	% 63,99	% 10,98
20.001-50.000 .....	-	-	-
10.001-20.000 .....	2	% 24,08	% 49,98
5.001-10.000 .....	-	-	-
1.001-5.000 .....	19	% 24,43	% 28,94
<1.001 .....	29	% 25,82	% 32,84
<b>ARABA BATEZ BESTE</b>	<b>51</b>	<b>% 31,85</b>	<b>% 18,33</b>
<b>BIZKAIA</b>			
>50.000 .....	3	% 38,78	% 48,90
20.001-50.000 .....	8	% 46,29	% 45,72
10.001-20.000 .....	9	% 38,08	% 47,95
5.001-10.000 .....	12	% 27,53	% 52,77
1.001-5.000 .....	40	% 25,11	% 27,68
<1.001 .....	39	% 44,32	% 27,42
<b>BIZKAIA BATEZ BESTE</b>	<b>111</b>	<b>% 36,81</b>	<b>% 43,95</b>
<b>GIPUZKOA</b>			
>50.000 .....	2	% 75,74	% 22,44
20.001-50.000 .....	4	% 36,58	% 21,85
10.001-20.000 .....	12	% 36,68	% 25,90
5.001-10.000 .....	16	% 44,77	% 26,91
1.001-5.000 .....	22	% 51,44	% 19,66
<1.001 .....	32	% 52,56	% 4,00
<b>GIPUZKOA BATEZ BESTE</b>	<b>88</b>	<b>% 48,37</b>	<b>% 23,61</b>
<b>EAE</b>			
>50.000 .....	6	% 49,98	% 26,63
20.001-50.000 .....	12	% 43,99	% 38,24
10.001-20.000 .....	23	% 35,69	% 35,40
5.001-10.000 .....	28	% 35,82	% 36,73
1.001-5.000 .....	81	% 29,58	% 26,92
<1.001 .....	100	% 40,80	% 21,02
<b>EAE BATEZ BESTE</b>	<b>250</b>	<b>% 40,63</b>	<b>% 30,95</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

### III.1.2.4 Ekitaldi itxietako aurrekontuen adierazleak

GERUZA	UDAL KOP.	KOBRANTZAK EKITALDI ITXIAK	ORDAINKETAK EKITALDI ITXIAK
<b>ARABA</b>			
>50.000 .....	1	% 53,95	% 83,29
20.001-50.000 .....	-	-	-
10.001-20.000 .....	2	% 31,67	% 76,16
5.001-10.000 .....	-	-	-
1.001-5.000 .....	19	% 62,57	% 87,62
<1.001 .....	29	% 62,66	% 78,45
<b>ARABA BATEZ BESTE</b>	<b>51</b>	<b>% 52,95</b>	<b>% 83,25</b>
<b>BIZKAIA</b>			
>50.000 .....	3	% 41,19	% 99,76
20.001-50.000 .....	8	% 39,89	% 97,90
10.001-20.000 .....	9	% 35,42	% 97,41
5.001-10.000 .....	12	% 26,48	% 89,71
1.001-5.000 .....	40	% 35,65	% 91,89
<1.001 .....	39	% 65,74	% 87,09
<b>BIZKAIA BATEZ BESTE</b>	<b>111</b>	<b>% 38,64</b>	<b>% 97,01</b>
<b>GIPUZKOA</b>			
>50.000 .....	2	% 44,19	% 99,26
20.001-50.000 .....	4	% 59,84	% 99,91
10.001-20.000 .....	12	% 57,34	% 94,61
5.001-10.000 .....	16	% 46,63	% 87,94
1.001-5.000 .....	22	% 73,79	% 91,60
<1.001 .....	32	% 94,98	% 97,81
<b>GIPUZKOA BATEZ BESTE</b>	<b>88</b>	<b>% 53,71</b>	<b>% 95,85</b>
<b>EAE</b>			
>50.000 .....	6	% 46,76	% 95,03
20.001-50.000 .....	12	% 44,38	% 98,45
10.001-20.000 .....	23	% 45,38	% 94,09
5.001-10.000 .....	28	% 37,27	% 88,68
1.001-5.000 .....	81	% 50,11	% 90,62
<1.001 .....	100	% 79,31	% 88,35
<b>EAE BATEZ BESTE</b>	<b>250</b>	<b>% 46,85</b>	<b>% 94,04</b>



### III.2 UDALAZ GAINDIKO ENTITATEEN ADIERAZLEAK 2014/12/31-N

Udalaz gaindiko adierazleak kalkulatzeko aztergai izan ditugun 58 udalen aurrekontu-likidazioei dagozkien datuak erabili dira eta informazioa aztertu da. Adierazleak eta eskuratutako likidazioen laburpenak, banaka jaso ditugu ondoko lotunean:

- <http://www.tvcp.eu/informes.asp>

#### III.2.1 FINANTZA ADIERAZLEAK

Berehalako likidezia eta epe laburreko kaudimena eta likidezia

Hona hemen udalaz gaindiko entitateen batez besteko baloreak, jarduera motaren arabera:

JARDUERA	BEREHALAKO		KAUDIMENA
	LIKIDEZIA	LIKIDEZIA	EPE LAB.
1. Ura eta saneamendua .....	% 414,60	% 158,93	% 557,35
2. Udal zerbitzuen kudeaketa .....	% 28,23	% 28,18	% 137,35
3. Hiriko hondakin solidoak .....	% 89,04	% 87,45	% 217,05
4. Gizarte ongizatea .....	% 335,60	% 333,94	% 426,17
5. Arabako Kuadrillak .....	% 121,20	% 114,11	% 288,12
6. Sust. eta iraks., euskara eta lan. prest.....	% 284,22	% 285,59	% 394,05
7. Partzoneriak eta baso ustiapena.....	% 219,35	% 113,45	% 269,35
8. Suteak itzaltzea .....	% 119,33	% 119,32	% 180,49
9. Garraioak.....	% 163,53	% 39,03	% 238,14
<b>EAE BATEZ BESTE</b>	<b>% 203,79</b>	<b>% 101,53</b>	<b>% 323,83</b>

#### Zorpetzea

JARDUERA	Euroak milakotan			
	ERABILITAKO ZORPETZEA	FINANTZA ZAMA	SARR.ARR.arab. ZORPETZEA	ZORRA AMORT. GUTXIENKO EPEA (*)
1. Ura eta saneamendua.....	79.463	9.000	% 48,09	2
2. Udal zerbitzuen kudeaketa.....	473	139	% 1,11	-
3. Hiriko hondakin solidoak .....	1.879	577	% 3,05	-
4. Gizarte Ongizatea.....	-	15	-	-
5. Arabako Kuadrillak .....	-	4	-	-
6. Sust. eta iraks., euskara eta lan. prest.....	-	-	-	-
7. Partzoneriak eta baso ustiapena.....	3	3	% 0,67	-
8. Suteak itzaltzea .....	-	-	-	-
9. Garraioak.....	482.324	47.997	% 341,29	13
<b>EAE GUZTIRA</b>	<b>564.142</b>	<b>57.735</b>	<b>% 125,66</b>	<b>6</b>

(\*) Ekitaldi kopurua.

Zorpetzeari buruzko informazioa bihurtu egiten da garraio arloak duen berriazko pisua dela eta; alor hori Bizkaiko Garraio Partzuergoak osatzen du eta udal zorpetzearen % 85



egiten du. Lehenagoko txostenetan azaldutako moduan, erakunde honen bideragarritasuna Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak azpiegituretan egindako inbertsioen finantzaketak sortutako finantza zamari aurre egin ahal izateko egiten dituzten ekarpenen baitakoa dela adierazi behar dugu. Entitate batean zorra itzultzeko gutxieneko epea 6 urtetik gorakoa da.

Edozein modutan, udalaz gaindiko entitateen finantza egitura ez da udalenaren antzekoa eta, beraz, finantza egoera kalifikatzeko erabilitako ratioak berberak izan arren, ondorioak eta, batez ere, neurri zuzentzaileak, ezin dira berdinak izan. Orokorrean, udalaz gaindiko erakundeek finantzaketaren zati handi bat lortzen dute berau eratzen duten udalek hala gastu arruntetarako, nola inbertsioetarako egiten dizkieten ekarpenen bidez. Hortaz, emaitza arrunt negatiboek adierazten dute entitatea osatzen duten udalen ekarpenak ez direla aski eta horrek zerikusia izan dezake emandako zerbitzuen tasa eta prezio publikoak kalkulatzeari egin diren hutsekin edo zerbitzu horiek kudeatzeari egin diren okerrekin.

## Diru-sarrera errepikarien eta egiturazko gastuen bilakaera

JARDUERA	DIRU-SARRERA ERREPIKARIEN BILAKAERA	EGITURAZKO GASTUEN BILAKAERA
1. Ura eta saneamendua .....	% 4,26	% 0,61
2. Udal zerbitzuen kudeaketa .....	% 10,33	% 7,14
3. Hiriko hondakin solidoak .....	% 7,68	(% 6,58)
4. Gizarte Ongizatea .....	% 8,79	% 2,58
5. Arabako Kuadrillak .....	% 10,27	% 8,55
6. Sust. eta iraks., euskara eta lan. prest.....	(% 14,41)	% 1,70
7. Partzoneriak eta baso ustiapena.....	% 12,77	(% 12,15)
8. Suteak itzaltzea .....	% 2,92	(% 0,92)
9. Garraioak .....	% 1,32	% 2,06
<b>EAE BATEZ BESTE</b>	<b>% 4,51</b>	<b>% 0,64</b>

### III.2.2 AURREKONTUAREN ADIERAZLEAK

#### III.2.2.1 Gastuen aurrekontuaren adierazleak

Hona hemen aurrekontu gastuari buruzko adierazleak biztanleko eurotan emanak eta udalaz gaindiko erakundeek garatzen duten jardueraren arabera sailkatuak:

JARDUERA	GASTU AURREK. EGIKARITZA	ORDAINKETAK EGITEA	ORDAINKETARAKO BATEZ-B. EPEA (*)
1. Ura eta saneamendua.....	% 75,79	% 89,06	47
2. Udal zerbitzuen kudeaketa.....	% 88,82	% 90,59	51
3. Hiriko hondakin solidoak .....	% 91,29	% 84,18	61
4. Gizarte Ongizatea.....	% 94,77	% 94,72	33
5. Arabako Kuadrilla.....	% 88,53	% 90,53	50
6 Sust. eta iraks., euskara eta lan. prest.....	% 95,63	% 96,89	63
7. Partzoneriak eta baso ustiapena.....	% 80,19	% 80,12	103
8. Suteak itzaltzea .....	% 93,46	% 93,43	62
9. Garraioak.....	% 85,78	% 93,15	27
<b>EAE BATEZ BESTE</b>	<b>% 82,96</b>	<b>% 90,15</b>	<b>44</b>

(\*) Egun kopurua.

Euroak milakotan

JARDUERA	GASTUA 2013	GASTUA 2014	LANGILE GAST. INDIZEA	INBERTSIO INBERTSIOA	AHALEGINA
1. Ura eta saneamendua.....	196.162	191.158	% 19,33	60.321	% 31,56
2. Udal zerbitzuen kudeaketa.....	39.433	44.301	% 18,56	2.798	% 6,32
3. Hiriko hondakin solidoak .....	88.225	67.074	% 7,01	7.708	% 11,49
4. Gizarte Ongizatea.....	18.978	19.523	% 40,08	246	% 1,26
